

HIKETA EDO HITANOAZ ZENBAIT ARGİ

Otsaila 1973

Endrike Knörr

I. AITZIN-SOLASA

Euskarak hiru bide du 2. pertsona singularra adierazteko, alegia, "hi", "zu" eta "berori". Azken hau alde batetara utzirik (arrazoinez dihoa gain-behera bide hori), hitanoak beti eta zukak orain oso gutitan "konprometatzen" dituzte elkar-hizlariak. Eskema batez aditzera ematearren:

a) Bide familiarra:

hi: etorri nauk; liburu hori irakurri diat.

zu: negar egin dizut; nor zaitugu? erori dituzu.

b) Bide arrunta:

zu: negar egin dut; nor zara zu? erori dira.

Zuka familiarrari eutsi egin behar diogu, euskarari benetan eutsi nahi badiogu. Hala hitanoari ere eutsi behar diogu. Hortarako, jakina, euskal gramatika ikasi behar da, honen guti ezagutzen dugun euskal gramatika.

Egun, hitanoa atzera dihoa, eta atzera joaite hortan oso gaizki erabiltzen, bai eta idazleen artean ere. Hitanoa berpizteko zenbait gauza jakin behar da lehenik. Hona non aurkitu:

Txillardegi: "Hika eta zuka-ko aditz-joko edo konjugazioaz". EUSKERA aldizkarian, XIII 1968, 1327. orr. eta darr.

Larresoro (*Txillardegi* bera, bada): "Sustrai bila". Donostia 1970. 105. orr. eta darr.

Ataun, Bonifacio de: "Gure aditza" (El verbo vasco)". EKIN bilduman, Buenos Aires, 1960., anitz orrialdetan.

Altuna, Patxi: "Euskal aditza", Bilbo 1971. 185. orr. eta darr.

Intxausti, Joseba: "Euskal aditza". Donostia, 1960., anitz orr.

Lafitte kalonjea: "Grammaire Basque", 248. orr.

* * *

Egun entzuten dira holako esaldiak:

"Isilik gelditu nauk ez bait *zekiat* zer esan"; "zer esan *dik*?" ; "etorri *dukan* gizona nere adiskide duk"; zigorra hartu dik "G.E.!" esan *duelako*.

Beraz, *lokutibo* denean ez da beti hitanoko forma erabili behar. Erran daiteke, bai, "ikus duka?" ("Jakin duka berria?", dio kantuak biziki ongi). Baina ez, otoi, "Etorri duk?" ez "Joan dituka?".

Gakoa non? Liburu horietan dago ikasbidea. Ordea, hitz gutitan zerbait esan dezagun.

Subjuntibo, *inperatibo* eta *potenzialean* ez da aldakuntzarik:

Ez *da* etorri > ez *duk* etorri / ez *dun* etorri (edo eta ez *duzu* etorri, zuka familiarrean).

Baina: ez *dedin* etor, eskatzen *dauat*.

Aditzak edozein (?) aurrizki daramanean ez da aldakuntzarik: (ikus oharra)

Dantza-lekutik jalgi *ginduan* aspertu egin bait *ginen*.

Aditzak edozein atzizki daramanean ez da aldakuntzarik:

Gauzatto bat erran diat tabernan, salatzaile bat bertan ikusi *dudalako*; erosi *dugun* autoaz etorri *gaituk* (ez "erösi *diagun*...).

Galderetan ez da lokutiborik behar ere:

"Egin dite hireak... Norentzat izanen *dira* (ez "dituk")?" (Axular)

"hik ere bide bera *daramak*; ez *dea* hala, Manez (ez "duka")?" (Manezaundi)

Berrero erranda: *lokutiboaz* ari gara hemen. Jakina erran daiteke:

"Hartu *duka* ene gutuna? (hortan ez bait dugu nehor konprometatzen)";

“*etor haitekea?*”; “*Joan hintzena?*”; “*berriki irakurri duan* liburuaren egilearen erdaltzalekeria nabarmen *duk*”, eta abar.

OHARRA: “*ba*” eta “*ez*” (“*ba*” afirmatibo-intensibo denean, jakina) ez dira aurrizkiak. Adibide bat: “*Ba gaituk* zortzi lagun, eta ez *gaituk* fuboltalde bat egiteko adina.”

* * *

II. HITANOKO LOKUTIBO-FORMAK

A) NOR-ADITZAK

Izan aditza

naiz	nauk / naun
da	duk / dun
gara	gaituk / gaitun
dira	dituk / ditun
nintzen	ninduan / nindunan
zen	huan / hunan (ikus beheko oharra)
ginen	gintuan / gintunan
ziren	hituan / hitunan (berdin)
naiteke	naitekek / naiteken
daiteke	zaitekek / zaiteken
gaitezke	gaitezkek / gaitezken
daitezke	zaitezkek / zaitezken
ninteke	nintekek / ninteken
liteke	litekek / liteken
gintezke	gintezkek / gintezken
litezke	litezkek / litezken
nintekean	nintekeaan / nintekeanan
zitekean	zitekeaan / zitekeanan
gintezkean	gintezkeaan / gintezkeanan
zitezkean	zitezkeaan / zitezkeanan
nintzake	nindukek / ninduken
litzake	huke
ginake	ginduzkek / ginduzken
lirake	hituzke

Oharra: Altuna baitan ez dut “*hunan*” ez “*hitunan*” ediren. Ustegabeko hutsunea dela iruditzen zait.

Egon aditza

nago	nagok / nagon (<i>ikus beheko oharra</i>)
dago	zegok / zegon
gaude	gaudek / gauden
daude	zeudek / zeuden
nengoen	nengoan / nengonan
zegoen	zegoan / zegonan
geunden	geundean / geundenan
zeuden	zeudean / zeudenan
nengoke	nengokek / nengoken
legoke	legokek / legoken
gengozke	gengozkek / gengozken
legozke	legozkek / legozken

Oharra: Irakurleak dakusanez, lan hontan forma batzu falta dira: bertzerik ez bait zen geuk egin beharra zen. Gainera, zenbait puntutan zalantza dateke. Esate baterako: *negok / nagok*. Iparraldeko formak hoberenik iduritzen zaizkit hemen ere bai: *dakiat, dakinat, dagok, nakarrek*, eta abar.

Etor - Ibil - Joan aditzak

nator	netorrek / netorren
dator	zatorrek / zatorren
gatoz	gatozek / gatozen
datoz	datozek / datozen

nabil	nebilek / nebilen
dabil	zebilek / zebilen
gabiltza	gabiltzek / -n
dabiltza	dabiltzek / -n

noa	nihoak / -n
dihoa, doha	dihoak / -n
goaz	goazek / -n
dihoaz, doaz	dihoaztek / -n

(iragana ez dakit: nentorreen?...).

nentorke	nentorkek / -n
letorke	letorkek / -n
gentozke	gentozkek / -n
letozke	letozkek / -n

nenbilke	nenbilkek / -n
lebilke	lebilkek / -n
genbiltzake	genbiltzakek / -n
lebiltzake	lebiltzakek / -n

nindoake	nindoakek / -n
lihoake	lihoake / -n
gindoazke	gindoazkek / -n
lihoazke	lihoazkek / -n

B) NOR-NORI ADITZAK

natzaio	natzaiok / -n
natzaie	natzaiek / -n
zait	zaidak / -n
zaio	zaiok / -n
zaigu	zaiguk / -n
zaie	zaiek / -n

nintzaion	nintzaioan / -ionan
nintzaien.....	nintzaiean / -ienan
zitzaidan.....	zitzaidaan / -idan
zitzaion	zitzaioan / -ionan
zitzaigun.....	zitzaiguan / -iguan
zitzaien.....	zitzaiean / -ienan
gatzazkio	gatzazkiok / -n
gatzazkie.....	gatzazkiek / -n
zazkit	zazkidak / -n
zazkio.....	zazkiok / -n
zazkigu	zazkiguk / -n
zazkie.....	zazkiek / -n
gintzazkion	gintzazkioan / -ionan
gintzazkien	gintzazkiean / -ienan
zitazkidan	zitazkidaan / -idan
zitazkion.....	zitazkioan / -ionan
zitazkigun	zitazkiguan / -iguan
zitazkien	zitazkiean / -ienan
nakioke	nakiokek / -n
nakieke	nakiekek / -n
dakidake.....	zekidakek / -n
dakioke	zekiokek / -n
dakiguke.....	zekigukek / -n
dakieke	zekiekek / -n
gakizkioke.....	gakizkiokek / -n
gakizkieke.....	gakizkiekek / -n
dakizkidake	zekizkidakek / -n
dakizkioke.....	zekizkiokek / -n
dakizkiguke	zekizkigukek / -n
dakizkieke.....	zekizkiekek / -n
nenkioke	nenkiokek / -n
lekidake.....	lekidakek / -n
lekiok	lekiok / -n
lekiguke.....	lekigukek / -n
lekieke	lekiekek / -n
genkizkioke	genkizkiokek / -n
genkizkieke	genkizkiekek / -n
lekizkidake.....	lekizkidakek / -n

lekizkioke.....	lekizkiokek / -n
lekizkiguke.....	lekizkigukek / -n
lekizkieke.....	lekizkiekek / -n
nenkiokean.....	nenkiokeaan / -anan
nenkiekean.....	nenkiekeaan / -anan
zekidakean.....	zekidakeaan / -anan
zekiokean.....	zekiokeaan / -anan
zekigukean.....	zekigukeaan / -anan
zekiekean.....	zekiekeaan / -anan
genkizkiokean.....	genkizkiokeaan / -anan
genkizkiekean.....	genkizkiekeaan / -anan
zekizkidakean.....	zekizkidakeaan / -anan
zekizkiokean.....	zekizkiokeaan / -anan
nintzaioke.....	nintzaiokék / -n
nintzaieke.....	nintzaiekek / -n
litzaidake.....	litzaidakék / -n
litzaioke.....	litzaiokék / -n
zitzaiguke.....	zitzaigukék / -n
zitzaieke.....	zitzaiekek / -n
gintzaizkioke.....	gintzaizkiokek / -n
gintzaizkieke.....	gintzaizkiekek / -n
zitzaizkidake.....	zitzaizkidakék / -n
zitzaizkioke.....	zitzaizkiokek / -n
zitzaizkiguke.....	zitzaizkigukék / -n
zitzaizkieke.....	zitzaizkiekek / -n

Egon aditza. NOR-NORI

nagokio.....	nagokiok / -n
nagokie.....	nagokiek / -n
dagokit.....	zegokidak / -n
dagokio.....	zegokiok / -n
dagokigu.....	zegokiguk / -n
dagokie.....	zegokiek / -n
gagozkio.....	gagozkiok / -n
gagozkie.....	gagozkiek / -n
dagozkit.....	zegozkidak / -n
dagozkio.....	zegozkiok / -n
dagozkigu.....	zegozkiguk / -n
dagozkie.....	zegozkiek / -n

nengokion	nengokioan / -ionan
nengokien	nengokiean / -ienan
zegokidan	zegokidaan / -idan
zegokion	zegokioan / -ionan
zegokigun.....	zegokiguan / -iguan
zegokien	zegokiean / -ienan
gengozkion	gengozkioan / -ionan
gengozkien	gengozkiean / -ienan
zegozkidan	zegozkidaan / -idan
zegozkion	zegozkioan / -ionan
zegozkigun	zegozkiguan / -iguan
zegozkien	zegozkiean / -ienan

Etor aditza

natorkio.....	natorkiok / -n
natorkie.....	natorkiek / -n
datorkit	zetorkidak / -n
datorkio.....	zetorkio / -n
datorkigu	zetorkiguk / -n
datorkie.....	zetorkiek / -n
gatozkio.....	gatozkiok / -n
gatozkie.....	gatozkiek / -n
datozkit	zetozkidak / -n
datozkio.....	zetozkiok / -n
datozkigu	zetozkiguk / -n
datozkie.....	zetozkiek / -n

(Bertzerik? Honelatsu: *nabilkiok*, *zebilkidak*, *nihoakiek*, *zihoazkidan*.)

C) NOR-NORK ADITZAK

nau.....	naik / -n
naute	naiate / nainate
dut	diat / dinat
du	dik / din
dugu	diagu / dinagu
dute	diate / dinate
gaitu	gaitik / gaitin
gaituzte	gaitiate / gaitinate
ditut	ditiat / ditinat

ditu	ditik / ditin
ditugu	ditiagu / ditinagu
dituzte	ditiate / ditinate
ninduen	nindian / nindinan
nindute	nindiaten / nindinate
nuen	nian / ninan
zuen	zian / zinan
genduen	genian / geninan
zuten	ziate / zinate
gintuen	gintian / gintinan
gintuzten	gintiaten / gintinaten
nituen	nitian / nitinan
zituen	zitian / zitinan
genituen	genitian / genitinan
zituzten	zitiaten / zitinaten
nazake	nazakek / -n (<i>ikus lehengo oharra</i>)
nazakete	nazakeate / nazakenate
dezaket	zezakeat / zezakenat
dezake	zezakek / -n
dezakegu	zezakeagu / zezakenagu
dezakete	zezakeate / zezakenate
gaitzake	gaitzakek / -n
gaitzakete	gaitzakeate / gaitzakenate
ditzaket	zitzakeat / zitzakenat
ditzake	zitzakek / -n
ditzakegu	zitzakeagu / zitzakenagu
ditzakete	zitzakeate / zitzakenate
nintzake	nintzakek / -n
nintzakete	nintzakeate / nintzakenate
nezake	nezakek / -n
lezake	lezakek / -n
genezake	genezakek / -n
lezakete	lezakeatre / -kenate
gintzake	gintzakek / -n
gintzakete	gintzakeate / gintzakenate
nitzake	nintzakek / -n
litzake	litzakek / -n
genitzake	genitzakek / -n
litzakete	litzakeate / litzakenate

nintzakean	nintzakeaan / -anan
nintzaketen	nintzakeaaten / nintzakeanaten
nezakean	nezakeaan / nezakeanan
zezakean.....	zezakeaan / -anan
genezakean	genezakeaan / -anan
zezaketen	zezakeaaten / zezakeanaten
gintzakean	gintzakeaan / -anan
gintzaketen.....	gintzakeaaten / gintzakeanaten
nitzakean	nintzakeaan / -anan
gintzaketen.....	gintzakeaaten / gintzakeanaten
nitzakean	nintzakeaan / -anan
zitzakean	zitzakeaan / -anan
genitzakean	genitzakeaan / -anan
zitzakeaten.....	zitzakeaaten / zitzakeanaten

ninduke	nindukek / -n
nindukete.....	ninduketek / -n
muke	nikek / -n
luke	likek / -n
gen(d)uke	gen(d)ukek / -n
lukete	luketek / -n
ginduzke	ginduzkek / -n
ginduzkete	ginduzketek / -n
nituzke	nitikek / -n
lituzke	litikek / -n
genituzke	genitikek / -n
lituzkete	litiketek / -n

Jakin aditza

dakit.....	zekiat (oroit <i>nago</i> forman emaniko oharraz) / zekinat
daki	zekik / zekin
dakigu	zekiagu / zekinagu
dakite	zekite / zekinate
nekien	nekian / nekinan
zekien	zekian / zekinan
genkien	genkian / genkinan
zekiten	zekiaten / zekinatzen

Ekar aditza

nakar	nakarrek / -n
nakarte	nekarreate / nekarrenate
dakart	zekarreat / zekarrenat
dakar	zekarrek / -n
dakargu	zekarreagu / zekarrenagu
dakarte	zekarreate / zekarrenate
gakartzi	gekartzik / gekartzin
gakartzite	gekartziate / gekartzinate
dakartzit	zekartziat / zekartzinat
dakartzi	zekartzik / zekartzin
dakartzigu	zekartziagu / zekartzinagu
dakartzite	zekartziate / zekartzinate
nenkarren	nenkarrean / nenkarrenan
nenkarten	nenkarreaten / nenkarrenaten
nekarren	nekarrean / nenkarrenan
zekarren	zekarrean / zekarrenan
genekarren	genekarrean / genekarrenan
zekarten	zekarreaten / zekarrenaten
genkartzin	genkartzian / genkartzinan
genkartziten	genkartziate / genkartzinate
nekartzin	nekartzian / nekartzinan
zekartzin	zekartzian / zekartzinan
genekartzin	genekartzian / genekartzinan
zekartziten	zekartziate / zekartzinate

Eduki aditza

nauka	naukak / -n
naukate	naukaate / naukanate
daukat	zeukat / zeukanat
dauka	zeukak / zeukan
daukagu	zeukaagu / zeukanagu
daukate	zeukaaten / zeukanate
gauzka	geuzkak / -n
gauzkate	geuzkaate / geuzkanate
dauzkat	zeuzkaat / -n
dauzka	zeuzkak / -n
dauzkatu	zeuzkaagu / zeuzkanagu
dauzkate	zeuzkaate / zeuzkanate

naukan.....	naukaan / naukanan
naukaten	naukaaten / naukanaten
neukan	neukaan / neukanan
zeukan	zeukaan / zeukanan
gendukan.....	gendukaan / gendukanan
zeukaten	zeukaaten / zeukanaten
gindeuzkan.....	gindeuzkaan / -anan
gindeuzkaten	gindeuzkaaten / -anaten
neuzkan.....	neuzkaan / -anan
zeuzkan	zeuzkaan / -anan
geneuzkan.....	geneuzkaan / -anan
zeuzkaten.....	zeuzkaaten / zeuzkanaten

D) NOR (ZER)-NORI-NORK ADITZAK

diot.....	zioat / zionat
diet.....	zieat / zienat
dit	zidak / -n
dio.....	ziok / -n
digu	ziguk / -n
die.....	ziek / -n
diogu	zioagu / zionagu
diegu	zieagu / zienagu
didate	zidaate / zidanate
diote	zioate / zionate
digute	ziguate / zigunate
diete	zieate / zienate

nion	nioan / nionan
nien	niean / nienan
zidan	zidaan / zidan
zion	zioan / zionan
zigun.....	ziguan / zigunan
zien	ziean / zienan
genion	genioan / genionan
genien	geniean / genienan
zidaten	zidaaten / zidanaten
zioten.....	zioaten / zionaten
ziguten	ziguaten / zigunaten
zieten.....	zieaten / zienaten

dizkiot.....	zizkioat / zizkionat
dizkiet.....	zizkieat / zizkienat
dizkit	zizkidak / zizkidan
dizkio	zizkiok / zizkion
dizkigu	zizkiguk / zizkigun
dizkie	zizkiek / zizkien
dizkiogu.....	zizkioagu / zizkionagu
dizkiegu.....	zizkieagu / zizkienagu
dizkidate.....	zizkidaaten / zizkidanate
dizkiote	zizkioate / zizkionate
dizkigute.....	zizkiguate / zizkigunate
dizkiete	zizkieate / zizkienate
nizkion	nizkioan / nizkionan
nizkien	nizkiean / nizkienan
zizkidan.....	zizkidaan / zizkidanan
zizkion	zizkioan / zizkionan
zizkigun.....	zizkiguan / zizkigunan
zizkien.....	zizkiean / zizkienan
genizkion	genizkioan / genizkionan
genizkien	genizkiean / genizkienan
zizkidaten	zizkidaaten / zizkidanaten
zizkioten	zizkioaten / zizkionaten
zizkiguten	zizkiguaten / zizkigunaten
zizkieten	zizkieaten / zizkienaten
dizaioket.....	zizaiokeat / zizaiokenat
dizaieket.....	zizaiekeat / zizaiekenat
dizadake	zizadakek / zizadaken
dizaioke	zizaiokek / zizaioken
dizaguke	zizagukek / zizaguken
dizaieke	zizaiekek / zizaieken
dizaiokegu.....	zizaiokeagu / zizaiokenagu
dizaiekegu.....	zizaiekeagu / zizaiekenagu
dizadakete	zizadakeate / zizadakenate
dizaiokete	zizaiokeate / zizaiokenate
dizagukete.....	zizagukeate / zizagukenate
dizaiekete	zizaiekeate / zizaiekanate
nizaioke.....	nizaiokek / nizaioken
nizaieke.....	nizaiekek / nizaieken
lizadake.....	lizadakek / lizadaken
lizaioke.....	lizaiokek / lizaioken

lizaguke	lizagukek / lizaguken
lizaieke	lizaiekek / lizaieken
genizaioke	genizaiokek / genizaioken
genizaieke	genizaiekek / genizaieken
lizadakeete	lizadakeate / lizadakenate
lizaiokete	lizaiokeate / lizaiokenate
lizagukete	lizagukeate / lizagukenate
lizaiekete	lizaiekeate / lizaiekenate
nizaiokean.....	nizaiokeaan / nizaiokeanan
nizaiekean.....	nizaiekeaan / nizaiekeanan
zidadakean	zidadakeaan / zidadakeanan
zizaiokean	zizaiokeaan / zizaiokeanan
zizagukean	zizagukeaan / zizagukeanan
zizaiekean	zizaiekeaan / zizaiekeanan
genizaiokean.....	genizaiokeaan / genizaiokeanan
genizaiekean.....	genizaiekeaan / genizaiekeanan
zidadaketen	zidadakeaaten / zizaiokeanaten
zizaioketen	zizaiokeaaten / zizaiokeanaten
zizaguketen	zizagukeaaten / zizagukenaten
zizaieketen	zizaiekeaaten / zizaiekenaten
ditzaioket.....	zitzaiokeat / zitzaiokenat
ditzaieket.....	zitzaiiekeat / zitzaiiekenat
ditzadake	zitzadakek / zitzadaken
dizaioke	zitzaiokek / zitzaioken
ditzaguke	zitzagukek / zitzaguken
ditzaieke	zitzaiiekek / zitzaiieken
ditzaiokegu.....	zitzaiokeagu / zitzaiokenagu
ditzaiekegu.....	zitzaiiekeagu / zitzaiiekenagu
ditzadakeete	zitzadakeate / zitzadakenate
ditzaiokete	zitzaiokeate / zitzaiokenate
ditzagukete.....	zitzagukeate / zitzagukenate
ditzaiekete	zitzaiiekeate / zitzaiiekenate
nizaizkioke	nizaizkiokek / -n
nizaizkieke	nizaizkiekek / -n
lizaizkidake	lizaizkidakek / -n
lizaizkioke	lizaizkiokek / -n
lizaizkiguke	lizaizkigukek / -n
lizaizkieke	lizaizkiekek / -n
genizaizkioke	genizaizkiokek / -n
genizaizkieke	genizaizkiekek / -n

lizaizkidakete	lizaizkidaketek / -n
lizaizkiokete	lizaizkioketek / -n
lizaizkigukete	lizaizkiguketek / -n
lizaizkiekete	lizaizkieketek / -n
nizaizkiokean	nizaizkiokeaan / nizaizkiokeanan
nizaizkiekean	nizaizkiekeaan / nizaizkiekeanan
zizaizkidakean	zizaizkidakeaan / zizaizkidakeanan
zizaizkiokean	zizaizkiokeaan / zizaizkiokeanan
zizaizkigukean	zizaizkigukeaan / zizaizkigukeanan
zizaizkiekean	zizaizkiekeaan / zizaizkiekeanan
genizaizkiokean ...	genizaizkiokeaan/genizaizkiokeanan
genizaizkiekean ...	genizaizkiekeaan/genizaizkiekeanan
zizaizkidaketen....	zizaizkidakeaaten/zizaizkidakenaten
zizaizkioketen	zizaizkiokeaaaten/zizaizkiokenaten
zizaizkiguketen....	zizaizkigukeaaten/zizaizkigukenaten
zizaizkieketen	zizaizkiekeaaaten/zizaizkiekenaten
nioke	niokek / nioken
nieke	niekek / nieken
lidake	lidakek / lidaken
lioke	liokek / lioken
liguke	ligukek / liguken
lieke	liekek / lieken
genioke	geniokek / genioken
genieke	geniekek / genieken
lidakete	lidaketek / lidaketen
liokete	lioketek / lioketen
ligukete	liguketek / liguketen
liekete	lieketek / lieketen
nizkioke	nizkiokek / nizkioken
nizkieke	nizkiekek / nizkieken
lizkidake	lizkidakek / lizkidaken
lizkioke	lizkiokek / lizkioken
lizkiguke	lizkigukek / lizkiguken
lizkieke	lizkiekek / lizkieken
genizkioke	genizkiokek / genizkioken
genizkieke	genizkiekek / genizkieken
lizkidakete	lizkidaketek / lizkidaketen
lizkiokete	lizkioketek / lizkioketen
lizkigukete	lizkiguketek / lizkiguketen
lizkiekete	lizkieketek / lizkieketen

Eraman aditza

daramaiot	zeramaioat / zeramaionat
daramaiet	zeramaieat / zeramaienat
daramait.....	zeramaidak / zeramaidan
daramaio	zeramaioak / zeramaion
daramaigu	zeramaiguk / zeramaigun
daramaie	zeramaiek / zeramaien
daramaiogu	zeramaioagu / zeramaionagu
daramaiegu	zeramaieagu / zeramaienagu
daramaidate	zeramaidatek / zeramaidaten
daramaiote.....	zeramaiotek / zeramaioten
daramaigute	zeramaigutek / zeramaiguten
daramaiete.....	zeramaietek / zeramaieten
daramazkiot	zeramazkioat / zeramazkionat
daramazkiet	zeramazkieat / -kienat
daramazkit.....	zeramazkidak / -kidan
daramazkio	zeramazkiok / -kion
daramazkigu	zeramazkiguk / -kigun
daramazkie	zeramazkiek / -kien
daramazkiogu	zeramazkioagu / -kionagu
daramazkiegu	zeramazkieagu / -kienagu
daramazkide	zeramazkidek / -kidaten
daramazkiote.....	zeramazkiotek / -kioten
daramazkigute	zeramazkigutek / -kiguten
daramazkiete.....	zeramazkietek / -kieten
neramaion.....	neramaioan / neramaionan
neramaien.....	neramaiean / neramaienan
zeramaidan	zeramaidaan / zeramaidan
zeramaion	zeramaioan / zeramaionan
zeramaigun	zeramaiguan / zeramaigun
zeramaien	zeramaiean / zeramaienan
generamaion.....	generamaioan / generamaionan
generamaien.....	generamaiean / generamaienan
zeramaidaten.....	zeramaidatean / zeramaidatenan
zeramaioten	zeramaiotean / zeramaiotenan
zeramaiguten	zeramaigutean / zeramaigutenan
zeramaieten.....	zeramaietean / zeramaietenan
neramazkion.....	neramazkioan / neramazkionan
neramazkien.....	neramazkiean / -kienan
zeramazkidan	zeramazkidaan / -kidan

zera ^m azkion	zera ^m azkioan / -kionan
zera ^m azkigun	zera ^m azkiguan / -kigunan
zera ^m azkien	zera ^m azkiean / -kieran
genera ^m azkion....	genera ^m azkioan / -kionan
genera ^m azkien....	genera ^m azkiean / -kieran
zera ^m azkidaten...	zera ^m azkidatean / -kidatenan
zera ^m azkioten....	zera ^m azkiotean / -kiotenan
zera ^m azkiguten...	zera ^m azkigutean / -kigutenan
zera ^m azkieten....	zera ^m azkietean / -kietenan

Ekar aditza

dakarkiot	zekarkioat / zekarkionat
dakarkiet	zekarkieat / zekarkienat
dakarkit	zekarkidak / zekarkidan
dakarkio	zekarkioak / zekarkion
dakarkigu	zekarkiguk / zekarkigun
dakarkie	zekarkiek / zekarkien
dakarkioagu	zekarkioagu / zekarkionagu
dakarkiegu	zekarkieagu / zekarkienagu
dakarkidate	zekarkidaaten / zekarkidanate
dakarkiate	zekarkioate / zekarkionate
dakarkigute	zekarkiguate / zekarkigunate
dakarkiete	zekarkieate / zekarkienate
nekarkion	nekarkioan / nekarkionan
nekarkien	nekarkiean / nekarkienan
zekarkidan	zekarkidaan / zekarkidan
zekarkion	zekarkioan / zekarkionan
zekarkigun	zekarkiguan / zekarkigun
zekarkien	zekarkiean / zekarkienan
genekarkion	genekarkioan / -kionan
genekarkien	genekarkiean / -kieran
zekarkidaten	zekarkidaaten / -kidanaten
zekarkioten	zekarkioaten / -kionaten
zekarkiguten	zekarkiguaten / -kigunaten
zekarkieten	zekarkieaten / -kienaten
dakar ^z kiot	zakar ^z kioat / zekar ^z kionat
dakar ^z kiet	zakar ^z kieat / zekar ^z kienat
dakar ^z kit	zakar ^z kidak / zekar ^z kidan
dakar ^z kio	zakar ^z kioak / zekar ^z kioak
dakar ^z kigu	zakar ^z kiguk / zekar ^z kigun

dakarzkie	zekarzkiek / zekarzkien
dakarzkie	zekarzkiek / zekarzkien
dakarzkioagu	zekarzkioagu / zekarzkionagu
dakarzkiegu	zekarzkieagu / zekarzkienagu
dakarzkidate	zekarzkidaate / zekarzkidanate
dakarzkiote	zekarzkioate / zekarzkionate
dakarzkigute	zekarzkiguete / zekarzkiguate
dakarzkiete	zekarzkieate / zekarzkienate
nekarzkion	nekarzkioan / nekarzkionan
nekarzkien	nekarzkiean / nekarzkienan
zekarzkidan	zekarzkidaan / -kidan
zekarzkion	zekarzkioan / -kionan
zekarzkigun	zekarzkiguan / -kiguan
zekarzkien	zekarzkiean / -kienan
genekarzkion	genekarzkioan / -kionan
genekarzkien	genekarzkiean / -kienan
zekarzkidaten	zekarzkidaaten / -kidanaten
zekarzkioten	zekarzkioaten / -kionaten
zekarzkiguten	zekarzkiguaten / -kigunaten
zekarzkieten	zekarzkieaten / -kienaten

Ondo solasa

Egileak (hobe: kopiatzaileak) kritikak eskertuko ditu. Ongi erranak onar, gaizki barka.

ERASKINA

Lan hontan ageri diren adizki batzuk ez dira Aditz Batu-rako harez gero onartu direnak. Gogoan izan 1973.ean egin nuela nik lan hau.

Huts garbi bat bada, guttienez:

huan / *hunan* bikotea ezarri nuen. Ez nekien orduan bigarren adizki hori (ustez emeari zegokiona) gipuzkerarena zela soil-soilik —eta menturaz berrikeria bat.

Moldiztegira baino lehentxeago, Txillardegi adiskidearen eritzia jaso nahi izan dut. Hona:

1. *huan* gabe, *zuan* hobesten du. Orobat, noski, *hituan* gabe, *zitian*.